


Jolastu nahi?



# BERTSOEGUNA2015

URTARRILAREN 31<sup>n</sup> DONOSTIAN | 12:00 KALEZ KALE Donostiako alde zaharrean. 18:00 EKTALDI NAGUSIA Kursaalako areto nagusian. 21:00 AFARIA ETA FESTA Manteo kiroldegian.

Arrolatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak



Hedabide laguntzaileak



# BERTSO EGUNA 2015

Berrogeita seigarren edizioa izango du BERTSO EGUNAK datorren larunbatean. Egun osoko ekitaldia prestatu dugu elkarlanean Donostiako Udalak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Kutxa eta EITBren laguntzarekin. 1968tik urtero-urtero Donostian egin izan da, 1970 eta 1980 urteetan izan ezik. Bertsolari Eguna zen lehen urteetan eta bertsolariak omentzen ziren. 1995 urtean helburua aldatzea erabaki zuen Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak: ordutik mimosoz prestatutako saiakera egiten da Kursaaaleko oholtzan.

## JOLASTU NAHI?

Hamabi aulki ikusten dira. Jolaserako jarrita daude aulkiak, bakoitza postura eta kolore batean. Bertsolarietako jolaserako proposamena egingo zaie, jolastea nahiko genuke, baina serio jolastea. Bertsoetan egin dezatela. Ez espero bestelako espektakulorik, bertso saio bat izango da.

Ainhoa Aranburu, Arnaitz Lasarte, Eñaut Agirre eta Josu Goikoetxea aritu dira ideia landu eta gaiak prestatzen. Urritik martxan dagoen gai-jartzaile eskolaren bueltan bildu dira laurak.

## EGITARAUA

Hiru ekitaldi edo atal izango ditu Bertso Egunak:

**12:00 Donostiako kaleetan: Bretxan, Konstituzio plazan eta Ikatx kalean**

**18:00 Ekitaldi nagusia Kursaaaleko Areto Nagusian**

**21:00 Afaria eta festa Manteo kiroldegian**

**Goizean** bertsolari mordoxka izango da kantuan, bederatzi guztira: Amaia Agirre, Iñaki Zelaia, Eneko Fernandez, Arrate Illaro, Xabi Igoa, Nahikari Gabilondo, Ander Elortegi, Unai Gaztelumendi eta Maddalen Arzallus. Saio bana egingo dute Bretxako merkatu kanpoan, Konstituzio plazan eta Ikatx kalean. Eskarmentu handiko jendea eta bertsoetan hasiberria dena elkarrekin kantuan jarri nahi izan ditugu goizeko ekitaldian. Eguraldiak laguntzen badu goizetik hasiko da bertso festa Donostian.

**Arratsaldeko** ekitaldian hamabi bertsolari izango dira: Unai Iturriaga, Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Eneko Lazkoz, Onintza Enbeita, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Amets Arzallus.

**Gauean** afaria eta festa izango da Manteo Kiroldegian. Bat-bateko saioetan arituko dira kantuan Jone Uria, Beñat Gaztelumendi, Xebastian Lizaso, Irati Anda eta Fredi Paia. Ondoren *Bat-batean* ikuskizuna izango dugu Oskar Estangaren eskutik.

## Elkarlana

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Donostia Kulturak Kutxaren eta EITBren laguntza izan dute antolaketa lanetan. Hedabide laguntzaileez gain (Argia, Berria, Deia, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Xorroxin Irratia, Euskadi Irratia), *Bera Bera* eta *Iparra Hegoa* elkarteekin, Iztueta nahiz Petritegi etxeekin aritu dira elkarlanean.

EITBk grabatuko du arratsaldeko ekitaldia eta gaueko hamarretan eskainiko du osorik ETB1 katean. Horrez gain, zuzeneko emankizuna egingo du [www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com) atariak.

## Sarrerak

Afaritarako bada nahikoa sarrera oraindik eta ekitaldirako 500 sarrera gelditzen dira. ostirala bitartean [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) helbidean erosi daitezke. Sarrerarik gelditzen bada egunean bertan arratsaldeko lauretan zabalduko da Kurasaaleko leihatila. Informazio eguneratua [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian topatuko duzue.

	<b>Sarrera</b>	<b>Bazkide sarrera</b>	<b>Gazteen sarrera</b>
<b>Ekitaldia+afaria</b>	40 euro	33 euro	30 euro
<b>Ekitaldia</b>	18 euro	13 euro	8 euro

Sarrerak salgai: [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

Argibideak: 943694129 (Bertsozale Elkarteak)

## HISTORIA

### Bertso Eguna 1968-2014

Aspalditik, 1968tik, dator Donostian urte hasierako ekitaldi hau antolatzeko usadioa; San Sebastian egunaren inguruan antolatu ohi da beti.

1968. urtean hasi zen antolatzen gaur BERTSO EGUNA izenetik ezagutzen dugun ekitaldi hau: Donostiako San Sebastian jai egitarauaren barruan bertso ekitaldi berezi bat antolatzea erabaki zuen KTE erakundeak, eta orduko txapelduna, Manuel Olaizola "Uztapide" omendu zen. Arrakastatsua izan zenez, antolatzen jarraitzea erabaki zuen KTE-k. BERTSOLARI EGUNA izena hartu zuen, eta garaiko hainbat bertsolariren OMENALDI eguna izan da urte askotan. Jarraian doakizue urtez urte omendu direnen zerrenda.

- Manuel Uztapide (1968)
- Fernando Aire "Xalbador" (1969)
- Manuel Lasarte (1971)
- Mattin Treku (1972)
- Iñaki Eizmendi "Baserri" (1973)
- Balentin Enbeita (1974)
- Pedro Ortuzar "Iturri" (1975)
- Joxe Miel Iztueta "Lazkao Txiki" (1976)
- Joxe Lizaso (1977)
- Joxe Joakin Mitxelena (1978)
- Joxe Agirre "Oranda" (1979)
- Paulo Zubiarrain "Paulo Txikia", Antonio Mari Eizmendi "Loidisaletxe" (1981)
- Jon Mugartegi (1982)
- Manuel Sein "Xanpun" (1983)
- Txomin Garmendia (1984)
- Jesus Alberdi "Egileor" (1985)
- Patxi Etxeberria (1986)
- Jon Azpillaga (1987)

**Bertsozale Elkarteak**, sorrera-sorreratik (1987), bere gain hartu zuen Bertsolari Egunaren egitarauaren ardura, Donostiako KTE erakundearen lankidetzaz eta babesarekin betiere, eta lehengo bidea jorratzen jarraitu zen:

- Bautista eta Xalbador Madariaga (1988)
- Jose Luis Lekuona "Lexoti" (1989)
- Jose Alberdi eta Basilio Pujana (1990)
- Patxi Iraola eta Florentino Goiburu (1991)

1991n omenduen alorra zabaltzea erabaki zen bertsoaritzaren alde lanean aritu zirenetara.

Emile Larre, Mariano Izeta eta Teodoro Hernandorena (1992): antolatzaileak.

Alfontso Irigoien antolatzailea eta Santi Onaindia (1993): eragilea eta ikerlaria hurrenez hurren.

Jexux Lete "Ibaiertz", Inozentzio Olea, Joxe Aierbe, Manuel Matxain, Luis Rezola "Tximela", Jose Manuel Arriola, Xalbador Zapirain "Ataño" eta Sebastian Salaberri (1994): gerra osteko bertso-jartzaileak.

1995ean BERTSOLARI EGUNAREN norabidea aldatzea erabaki zuen Bertsozale Elkarteak. Hala, omenaldien aroari amaiera eman eta Bertsolari Egunari ateak itxi, eta BERTSO EGUNARI ireki zitzaizkion. Gizartearen ohitura eta bizi-molde aldaketek, hala nola bertsoaritzarenak berarenak, eguneratze bat eskatzen zuen helburuetan zein egin-moldeetan. Igande eguarterratsaldeko gertakizuna izatetik, larunbat arrats-gaukoa izatera igaro zen, eta helburu berriak jarri ziren: garaiko bertsoaritzaren aldaketak islatzea, esperimintatzea, kanpoko esperientziak ezagutaraztea... Horrela, saiakerak egin dira bat-bateko sorkuntza eta eszenen jartzeko molde landuen arteko orekaren bila. Hamaika ekitaldi ezagutu ditugu orduz gero:

- 1995 *Udarregiren mendeurrena*: Andoni Egaña eta Zazpi Eskaleen disko aurkeztu berriek, ikus-entzunezko osagarriak eta bat-bateko saioak izan zuten protagonismoa.
- 1996 Alpujarretako Troberoak, Balear uharteetako glosadoreak eta Kubako decimista izan ziren gure artean. Bat-bateko bertsoaritzak izan zuen bere lekua.
- 1997 *Katea ez da eten* lemapean hiru belaunaldietako bertsoariek osatutako taldeen bat-bateko saioak osatu zuten.
- 1998 Pedro Mari Otaño Ameriketara azken aldiz joan zenaren 100. urtemuga ospatuz antolatu zen Euskadi Irratiarekin elkarlanean.
- 1999 *Mende bi tarte* izan zuen lema, eta bat-bateko saio berezia izan zuen oinarri. Saio amaieran dantza eta bertsoen arteko uztarketa entseatu zen.
- 2000 *Bertso Eguna 455. Jalgi adi plazara* zuen lema Etxeparerena gogoan. Bat-bateko saioa oinarri, bertsoaritzaren historia islatzen zuen diaporama eta bertsoariaren "trantze"aren antzezpena jaso zituen.
- 2001 Bertso Egunak... *Bere Bidean* Bertso Tramaren proposamena ekarri zuen: gidolari batek eratu eta proposatutako gidoi jarraituan bertsoariaren bat-bateko sormena.

- 2002 Eneko Olasagastiren gidaritzapean, eszenografian egin zen ahalegina, baliabide desberdinak erabiliz gaiak emanez bertsolariei. Bat-bateko goi mailako bertsogintza eta eszenaratzea uztartzea izan zen jomuga.
- 2003 Gai-jartzaileek aurreko urtean zehar egindako lanaren isla izan nahi zuen, egungo bertsogintzan duten eragina eta beren sortzaile izaeraren aldarrikapenaren irudi. Bertsolarien sormena eta gai-jartzaileen eragina izango ziren nagusi.
- 2004 Bertsogintzarentzat protagonismo osoa berreskuratzeaz gain, bertsolarien kokapena eta espazioaren banaketa izan ziren bereizgarri nagusi. Bertsolarien posizioa eta oholtzaren banaketa bereziak bertsoan edo bertso-aldian izan dezakeen eragina azaleratu nahi izan zen.
- 2005 *Bertso Hutsik*. Bertsoa biluzik, zer ezkutaturik gabe bere neurriaren bila. Horretarako, zer hobe bertsolariak, oholtza gainean, bakarrik egotea baino? Historiari erreparatuz gero, argi dago ez dela formula berria bertsolariak bikoteka gai librean aritzea. Baina berdina al da gai librean herriko plazan ala Kurtaal bezalako areto batean jardutea? Eta nolako bilakaera du bertsoaldiak bikotea hirukote bihurtuz gero? Bertsoaren egoerarik puruena ezagutu genuen joan zen urtean.
- 2006 *Lehenko Lepotik* da leloa. Txapelketa Nagusia 2005-en arrakastaren zurrumbiloan murgilduta, nondik gatozen gogorarazi nahi izan da, protagonismoa emanez bertsolari belaunaldi zaharrenei. Bertsolariak ez ezik, zer aldatu da bertsolaritzan? Bertsoa bizirik dago. Bertsolariak eta inguruak egiten dute bertsoa. Eta zertan aldatu da ingurua azken 40 urteetan? Nola ibiltzen ziren orduan? Ze gaiei kantatzen zitzairen eta nola jartzen ziren gaiok? 60. hamarkadara jauzi egin eta orduko bertso-giroa bizitu nahi izan da Kurtaalen.
- 2007 *Aho Zabalik* Bat-bateko sorkuntza eta komunikazioa da bertsolaritza. Salbuespenak salbuespen, bertsolaria bere soilean kokatu ohi da ikus-entzulearen aurrean, eta hitza ez beste bitartekorik gabe liluratu ohi du: magia, oreka, emozioa, umorea, ironia... ikus-entzuleekin komunikazioa lortu eta konplizitate giroa sortzea da helburua. Bertsolariek, Txan magoaren kolaborazioarekin eta Ander Lipus aktore bikainaren gidaritzapean giro magikoa lortu zuten. Kurtaalek eskaintzen dituen baliabideak baliatu ziren emaitzarik oparoena atera nahian.
- 2008 *Bertso-Bertsioa*. Sorkuntza globalean eta bertsogintzan eztabaidagai diren kontzeptuak aireratzea zuen helburu 2008ko Bertso Egunak. Bertsoa/bertsioa, orijinala/kopia, autentikoa/imitazioa, erreproduziblea/irreproduziblea, autoretza/jabetza konpartitua (copyright/copyleft), plagioa, aipuak... Eskenaratzean egin zen ahalegina, bertsolari zein gai-jartzaileak itzaletan mantenduz mikro aurrera joan arte. Nortasunik ere ez zuten izan protagonistek, zenbakiz edo kolorez (barra-kode bat bailitzan) izan ziren deituak.
- 2009 Joan-etorrian. Bertsolarien artean, gai-jartzailea eta bertsolariaren artean, baita bertsolariak eta publikoaren artean ere. Bertsoa komunikazioa den heinean, publikoa agente aktiboa da bertso-ekitaldian. Gaia edo bertsoa entzun osteko erreakzioak –isiltasuna, txaloa, keinua, algara- eragina du bertsolarian eta saioan eta sormen prozesua baldintzatzen du. Hori erakusteko publikoa izan zen abiapuntu, Kurtaaleko ekitaldiko gaiak jartzea eskatu zitzaion publikoari.
- 2010 Jorge Oteiza eskulturagile eta pentsalariaren inguruan ardaztu zuen ekitaldia Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Euskal kulturari egin zizkion ekarpenak balekoak izan direla sinistuta eta bertsolaritzari aitortu zion begiruneak

bultzatuta. Bere ideiak eta ateraldiak oholtza ganean frogak egiteko baliatu ziren: Oteizaren esaerak, izaera, esaldiak... gurera ekarri, moldatu eta probatu.

- 2011 Kamaleoiek hartu zuten Kursaal Bertsu Egunaren edizio ganberroenean. Bertsotan ari diren leku fisikora, entzulearengana eta gaiaren eskakizunetara moldatzeko erabiltzen dituzten baliabideak bistaratu zituen eskenatokian aurkeztu ziren pilotalekuak, gaztetxeak, elkarte gastronomikoan prestatutako otorduak eta alde zaharreko Rekalde tabernatik zuzenean egindako saioak.
- 2012 Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen hogeita bost urteurrena ospatu zen. Elkarren segidan katean jarritako domino pieza erraldoiek markatu zuten saioaren estetika. Kantuan, zazpi probintziatako hogeita bost bertsolari, mende laurden lehenago Bertsolari Egunean omendua izan zen Jon Azpillaga bertsolariak abestu zituen agurreko bertsoak.
- 2013 Gizakiak bizitzan zehar aurre egin beharreko krisiak izan zituen ardatz Kurasaaleko ekitaldiak. Jakina baita, zalantza egoeran areagotzen direla sormena, irudimena eta lanerako grina. Irudi gisa erabili zen sokak erakusten digu tentsio momentua: "Soka etetera doa, honezkero eten ez bada. Hari bakarrean izanik bi aukera ditugu: soka tenkatu edo korapilo berriak asmatu. Dena ziztuan aldatzen da eta pentsatu gabe erabakitzen dugu. Estutasuna ez da sormenaren akuilurik txarrena, ordea."
- 2014 "Azalera". Bertsolaritzaren historiako zein gaurko emakumeak oholtzaren erdian jartzea eta generoa gai nagusi bihurtzea bilatu zuen Bertso Eguna izan zen. Emankizunaren antolaketan 37 emakumek hartu zuten parte (prozesua bera jabetze eskola bihurtuz), eta Kurasaaleko oholtzan lehen aldiz bertsolarietan 8 emakume eta 4 gizonezko ikusi genituen bertsotan. Antzerkiak, oihal dantzak, musikak eta kantuak atondu zuten emanaldia, emakumeen presentziaz bete zena.